



2012KO UZTAILAREN 13KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko uztailaren hamahiruan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkezten da 2012ko ekainaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 28 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteen dagoena, BERROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (55.821,93 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntza, lehen maiztean suspenditu zitzaiona, berriro alta ematea, eskatuta zeukan diru sarrerak bermatzeko errenta ukatu egin zaiolako. Lehen zeukan 125€ko laguntza aldatzea orain laguntza hilean 250€tan finkatuz. Eta proposatzen da laguntza hau abendura arte ordaintzea maiatzetik hasita dagozkion ordainketak eginez. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125€ko diru laguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 62,5€ko diru laguntza ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.

- 12-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125€ko diru laguntza ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

San Benito Ikastolari diru laguntza.-

San Benito Ikastolak jardueren garapenerako udal honekin izenpetuta daukan hitzarmenaren arabera, Lazkaoko Udalak HOGEITA BOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HIRU (25.523 €) EUROko dirulaguntza ematea hitzartzen da San Benito Ikastolak garatzen dituen eskolaz kanpoko jarduerengatik. Dirulaguntza hau udalaren 2012ko aurrekontuan jasota dago. Hitzarmenaren arabera, dirulaguntza bi zatitan ordainduko zaio, bata dirulaguntzari onarpena emandakoan eta beste erdia honek garatutako jardueren zuriaketa egindakoa, hau egiteko, beranduenera ere, 2013ko urtarrilaren 31ko data finkatzen delarik.

Kultura Batzordeak dirulaguntza hau ematearen aldeko proposamena egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta kultura batzordearen proposamena ikusita, bertaratutako guztien aldeko botuz, San Benito Ikastolari proposatutako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Gerriko Ikerlan Sariketa Bekarako Goierriko Euskal Eskolari diru laguntza.-

2012 urteari dagokion Gerriko Ikerlan Sariketa Bekaren lehen zatia ordaintzeari buruz Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Gerriko Ikerlan Sariketa bekarako bi mila eta bostehun (2.500 €) ordaintzea onartzen da.

San Juan jaietarako Zubierrekako auzotarrei diru laguntza.-

Zubierreka auzoan egiten diren San Juan jaietarako, Zubierrekako jaien antolakuntzaz arduratzen den Jose Ramon Sala Elizondori jaien antolaketarako BOSTEHUN ETA HAMAIKA EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (511,85 €) ematea proposatzen da kultura batzordetik.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta kultura batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Zubierrekako jaien antolakuntzarako Jose Ramon Sala Elizondori 511,85€ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

1512-2012 elkarteari diru laguntza.-

1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimena aurrera eramaten ari den 1512-2012 Elkarteari HIRUREHUN EUROKO (300€) diru laguntza proposamena egin du Kultura Batzordeak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu eta Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenagatik 1512-2012 Elkarteari 300 €ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

Nazioen Mundua jaialdiaren antolaketarako

Kultura Batzordeak Lazkaon 2012ko ekainaren 9an antolatutako Nazioen Mundua jaialdiari LAU MILA EUROko (4.000 €) diru laguntza ematea proposatzen du.



Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu eta Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hartu Hitza Kultur Elkarte-ari, Nazioen Mundua jaialdiaren antolakuntzarengatik, 4.000 €ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

Mintzalaguna proiekturako Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari dirulaguntza.-

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak antolatzen duen Mintzalaguna proiekturako dirulaguntza aurreikusten udal aurrekontuan, eta Euskara Batzordeak dirulaguntza honetatik erdia, hau da, BOST MILA ETA BERROGEITA HAMAR EURO (5.050 €) orain ordaintzea proposatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta Euskara Batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari Mintzalaguna proiekturako 5.050 €ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteari diru laguntza.-

Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteak, VI. Goierri Beheko 8 udalen pelota txapelketarako diru laguntza eskariaren aurrean Kirol Batzordeak EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EUROKO (170€) diru laguntza emateko proposamena egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu eta Kirol batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteari, VI. Goierri Beheko 8 udalen pelota txapelketaren antolaketarako, 170€ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

VI.- 19 H.J.A. -LARREATEGI-KO 1 B.U.AREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA.-

Alkateak esaten du azken unean konturatu direla behin betiko onarpena emateko behar diren dokumentu guztiak osatu gabe daudela eta beraz gaur ezingo zaiola onarpena eman.

Tokiko Gobernu Batzarrak gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du birpartzelazioa lehen bai lehen onartzearen garrantziaren aurrean, alkatearengan eskuordetzea onarpena, honek espedientea osatu bezain laister onarpena eman daezaion.

VII.- UDALAREN JABETZAKO MIKELAR 6KO LOKALA BESTERENTZEKO ENKANTERA ATERATZEA.-

Udal zerbitzu teknikoek Udalak Mikelak 6an kokatzen den bere jabetzako lokala besterentzeko osatutako espedientea osatu dute. Bertan udal arkitektoaren balorazio txostena dago non lokalaren balioa hogeita bi mila ehun eta hogeita zortzi euro eta hogeita hamalau zentimotakoa (22.128,34 €) dela esaten den.



Ogasun Batzordeak lokal hau besterentzeko enkantera ateratzeko proposamena egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak gaia aztertu ondoren eta Ogasun Batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Mikelar 6ko udal jabetzako 15,04 metro karratuko lokala besterentzeko espedientea onartzea.
- 2.- Erizpide bakarra (prezioa) izango duen lehiaketarako deialdia egitea.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamahiru minutu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

